

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala**232. zenbakia****Data 2013-12-05****130 orria****7 Udal Administrazioa**

LASARTE-ORIAKO UDALA

"Arlo horretako araudi berriak ezarritako baldintzetara egokitzeko xedez Lasarte-Oriako udalaren kontratu administratiboetarako hizkuntzako betebeharrak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa"ren behin betiko onarpena.**LASARTE-ORIAKO UDALA***Iragarkia*

Lasarte-Oriako Udalaren kontratu administratiboetarako hizkuntzako betebeharrak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa, arlo horretako araudi berriak ezarritako baldintzetara egokitzeko xedez» informazio publikorako jarritako epea igaro delarik eta epe horren barruan inork alegaziorik aurkeztu ez duenez gero, behin betiko bihurtzat jotzen da Udalbatzarrak 2013ko uztailaren 9an egindako bilkuran hartu zuen erabakia.

Erabaki honek amaiera ematen dio bide administratiboari, eta interesatuek Administrazioarekiko Auzietako Errekurtsoa jarri ahalko diote, Euskadiko Justiziaren Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietarako Salan, iragarpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 2 hilabeteko epean. Nolanahi ere, horrek ez die eragotziko egoki deritzoten beste edozein errekurtso jarri ahal izatea.

Ondorioz, eta Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzeko 1985/7 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Ordenantza osorik argitaratzen da.

Lasarte-Oria, 2013ko azaroaren 28a.—Alkatea.

(3965) (11292)

*Lasarte-Oriako Udalaren kontratu administratiboetarako hizkuntza betebeharrak.**1. Aurrekariak.*

Buruntzaldeko udaletako erabilera planetan proposaturiko hainbat neurri modu bateratuan lantzeko ahaleginaren barruan, «Zerbitzuen kontratazioetako hizkuntza-irizpideak lantzea» izan zen 2004-2005 eta 2005-2006 ikasturteetarako finkatutako lan-ildoetako bat. Elkarlanean egindako ahalegin horren ondorioz 2006ko ekainean onartu zen, Buruntzalde mailan, «Buruntzaldeko udalen kontratu administratiboetarako hizkuntza betebeharrak» izeneko dokumentua.

Izan ere, indarrean daukagun araubide juridikoari jarraiki, Administrazioak bermatu egin behar ditu zerbitzu horiek jasotzen dituzten herritar euskaldunen eskubideak; gainera, zerbitzuen hartzaileen artean euskaldunen portzentajeak altuak dira Buruntzaldeko herrietan eta urtetik urtera igotzen ari dira. Honela, elebitasuna ez da hautazkoa herri-administrazioarentzat; aitzitik, legezko eskakizuna da, eta administrazioaren jardura bat ere ez dago salbuetsita, ezta kontratazioa ere.

Dokumentu honetan aipatzen diren betebeharrak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuarekin bat datoz, zeinak bere 18. artikuluan ondorengoa esaten duen:

«Entitate bakoitzak 17. atalean ezarritako normalizazio-helburuak betetzeko erabiliko duen hizkuntza politika eta bere nondik norako eta jarraibide nagusiak agertuko dira euskararen erabilera normalizatzeko planetan. Bertan, -gutxienez, honako hauek jasoko dira: (...) d) Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren -batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzuak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntza-baldintzak berma daitezen».

Buruntzaldeko udaletan, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua jarraituz, dagokion Udalbatzarrak onartutako Euskararen Erabilera Areagotzeko Planetan berariaz aurreikusten da kontratu administratiboetan hizkuntza irizpideak txertatzeko borondatea. Entitate bakoitzak ezarritako normalizazio-helburuak betetzeko erabiliko duen hizkuntza politika eta bere nondik norako eta jarraibide nagusiak agertzen dira euskararen erabilera normalizatzeko planetan. Lasarte-Oriako Udalean, zehazki, «Lasarte-Oriako Udalean Euskara Erabiltzeko III Plana. 2008-2012» planean daude jasoak, (zeina onartu baitzen 2008ko maiatzaren 30ean egindako ez ohiko bilkuran) «3.6.- Hizkuntza irizpideak» alorreko helburuetan.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak bera alor honetan bidea urratzen hasia da. Honela, 2006ko otsailaren 28an Jaurlaritzaren Kontseiluak Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta horren Erakunde Autonomoen eta Zuzenbide Pribatupeko Ente Publikoen administrazio-kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza-baldintzei buruzko erabakia hartu zuen.

Hori guztia kontuan izanik, udalbatzarrak 2010eko urtarrilaren 14ko bilkuran «Lasarte-Oriako Udalaren kontratu administratiboetarako hizkuntza betebeharrak» arautzeko ordenantza onetsi zuen eta behin betiko izaeraz argitaratu zen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN 2010eko apirilaren 8an.

Geroztik, ordea, urriaren 30eko Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legeak hainbat aldaketa jaso zituen eta guztiak bilduak izan ziren azaroaren 14ko 3/2011 Legegintza Errege Dekretuan, zeinaren bidez Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratua onartzen baitzen. Aldaketa horien arabera, kontratuen adjudikazioa ez da bi fasetan egiten, bakar batean baizik, adjudikazioa behin betikoa egiten da eta kontratua sinatzearekin kontratua perfektionatzen da.

Horren guztiaren ondorioz, arestian aipatutako udal ordenantza araudi berrira egokitu behar izan da eta hori da hain zuzen ere udal ordenantza hau berritzearen motiboa.

2. Helburuak eta antolabidea.

Dokumentu honetan, zerbitzu bat kontratatzerakoan Lasarte-Oriako Udalak eskatu beharreko hizkuntza-betebeharrak zehaztu dira.

Udalak kontratatzen dituen zerbitzuen artean bi multzo nagusi bereizi dira: Herritarrekin harreman zuzena dutenak –edo jendaurreko izaera dutenak–, batetik, eta horrelako harremanik ez dutenak, bestetik. Ezinbesteko jo da bereizketa hori egitea hizkuntza-gaitasunak zehazterakoan, zeren eta langileek zerbitzu bakoitzean bete beharreko lan-eginkizunen ezaugarriek determinatzen baitute zeregin horretarako beharrezkoa izango duten hizkuntza-gaitasuna.

Bestalde, Udaleko administrazio-atalaren hizkuntza izaera ere kontuan izan da, alegia, atal elebiduna den edo ez. Izan ere, elebidun izendaturiko atalek hizkuntza baldintza jakin batzuk bete behar dituztenez, horrek bermatu egiten du atal hori prestatu dagoela kanpo harremanetako lan-eginkizunak bi hizkuntza ofizialetan betetzeko.

Horiek horrela, helburua bikoitza da:

1) Batetik, Udalean baldintza-agirien bidez egiten diren kontratu administratiboetarako hizkuntza-betebeharrak finkatu eta horien arabera ezarritako hizkuntza-gaitasunak jasoko dituen baldintza-agirietarako klausula eredu bat prestatuko da. Baldintza administratiboen agirian hitzez hitz txertatu beharreko betebeharrak dokumentu honen 3. eta 4. ataletan kaxotxa artean datozen testuak dira, eta hiru ataletan bereizi ditugu:

a. Hizkuntza-gaitasunari dagozkionak klausula administratibo partikularren agirian txertatuko dira, «Hizkuntza-betebeharrak» izeneko atalean.

b. Zerbitzuan erabiliko den hizkuntzari dagozkionak, baldintza teknikoaren agirian, «Baliabide pertsonalak eta materialak» ataleko «Hizkuntza-betebeharrak» azpiatalean.

c. Betebeharren jarraipen eta ez betetzeari buruzkoak, baldintza teknikoaren agirian, «Baliabide pertsonalak eta materialak» ataleko «Hizkuntza-betebeharrak» azpiatalean.

Hizkuntza-gaitasuna terminoa zenbaki bereko administrazioko hizkuntza eskakizunaren parekoa izango da (ikus I. eranskina).

2) Bestetik, kontratu txikien bidez (baldintza-agiririk gabe) gauzatutako kontratazio administratiborako hizkuntza-betebeharrak finkatuko dira, kontratua esleitzen duen ebazpenean jasoko direnak.

Ondorengo ataletan gaur egun Lasarte-Oriako Udalak kontratatuta dauden zerbitzuak daude sailkatuta. Edozein kasutan, Udalak zerbitzu berri bat sortzea erabakitzen duenean, sailkapen horretako zein multzori dagokion definituko du eta dagozkion ezaugarriak aplikatuko ditu.

Zerbitzu bat kontratatzerakoan, subrogatutako langilerik badago, ez du hizkuntza-gaitasuna egiaztatzeko derrigortasun berririk izango. Hala ere, zerbitzua emango duen enpresak hizkuntza-prestakuntza plan bat aurkeztu beharko du subrogatutako langileek betetzen dituzten lanpostuen hizkuntza-gaitasunak lor ditzaten. Hori guztia, subrogazioari buruzko legediak dioenaren kaltetan izan gabe.

Dokumentu honetan langileen hizkuntza-gaitasunari buruz ezartzen diren derrigortasunetatik salbuetsita egongo dira Eusko Jauriaritzak administrazioan zuzenean lan egiten duten langileentzat zehaztutako kasu berberak, hain zuzen ere, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Elkarte herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak zehazten dituenak.

3. Jendaurreko izaera duten zerbitzuak kontratatzeko hizkuntza-betebeharrak.

Jendaurreko izaera duten multzoko zerbitzuak askotarikoak direnez eta haien euskaraz ere eman ahal izateko langileek behar duten hizkuntza-gaitasuna zerbitzu bakoitzaren ezaugarrien arabera izango denez, bost azpimultzo bereizi ditugu:

1. Taberna, zinema eta harrera.
2. Heziketa.
3. Haurrak eta gazteria.
4. Bereziak.
5. Bestelakoak.
- 3.1. Kontratazio txikiak.

Honako klausula hau txertatuko da kontratua esleitzen duen ebazpenean:

«Enpresa esleipendunak, zerbitzua ematerakoan, Udalak bere hizkuntza jarduera arautzeko dituen planen arabera jokatu du. Horretarako, kontratua egingo duen departamentuarekin, eta beharko balitz euskara zerbitzuarekin, harremanetan jarriko da, zerbitzua ematerakoan bete beharko diren hizkuntza baldintzen berri eman diezaion».

3.2. Baldintza-agirien bidez egindako kontratazioak.

Arestian aipaturiko azpimultzo horietako bakoitzari hizkuntza-gaitasun jakin bat dagokio eta horixe da langileek egiaztatu beharko dutena, alegia, ematen duen zerbitzua barruan hartzen duen azpimultzoari dagokiona. Nolanahi ere, litekeena da - zerbitzuen ezaugarriak tarteko- multzo bereko zerbitzu guztiak hizkuntza-gaitasun bera ez izatea.

a) Hizkuntza-gaitasunari buruz:

Herritarrekin zuzeneko harremanean lan egitea dakarten kontratuei dagokienez, zeinak aurrerago zerrendatzen baititugu, lan horiek burutuko dituzten langileek gai izan beharko dute beren eginkizunak bi hizkuntza ofizialetan betetzeko.

Horretarako, baldintza teknikoan agirian zehaztu egin beharko da hizkuntza gaitasun jakin bateko pertsonen bete beharko diren lanpostuen zerrenda, eta eskatutako maila adieraziko da.

Bestalde, kontratua burutzerakoan kontratatistak izango dituen betebeharrak buruz aurrerago esaten denaz gain, honako klausula txertatuko da baldintza administratiboan agirian:

«Hizkuntza-betebeharrak:

«Udalak bere hizkuntza jarduera arautzeko dituen planen arabera eman beharko du zerbitzua enpresa adjudikatarioak. Horretarako, baldintza teknikoan agirian eskatutako hizkuntza gaitasuna duten langileak adskribatu beharko dizkie lanpostuei (txertatu hemen I. Eranskinaren arabera zerbitzu mota bakoitzari dagokion hizkuntza-gaitasuna).

Enpresak horrelako langileak badituela akreditatze aldera, kontratazio-ahalekin egindako adjudikazio-proposamena jasotzen duenetik kontatzen hasi eta bi egun balioduneko epean, kontratatze prozedura kudeatzen duen departamentuak eskaintza ekonomikoki onuragarriena aurkeztu duen lizitatuari errekeritu beharko dio bost egun balioduneko epean, Udalak egindako errekerimendua jasotzen duen egunaren hurrengotik kontatzen hasita, identifikatuzala kontratua gauzatzeko behar diren lanpostuak betetzeko izendatu dituen langileak, adieraziz nolako mailak dituzten hizkuntza gaitasunean eta, hala dagokionean, dauzkaten sinestamenduak erantsita.

Baldin eta langile horietakoren batek edo inork ere ez badu eskatzen zaion hizkuntza gaitasuna, edota gaitasun hori akreditatzen ez badu, behar duten langileei azterketak edo mailaketa-probak egingo dizkie Udalak, SPKLTBko 151.2 artikuluan aipatzen diren dokumentuak aurkezteko baldintza-agiri honetan finkatutako epearen barruan. Baldin eta, eskatutako hizkuntza-betebeharrak betetzen dituzten hautagaiak falta zaizkiolako, lanposturen bat bete ezinik geratzen bada, lizitatuak bere eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da. Kasu horretan, prozedura bera egingo da hurrengo lizitatuarekin, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera.

Agiri hauen bitartez egiaztatuko da hizkuntza-gaitasuna: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.

Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera, aintzat hartuko dira euskaraz egindako ikasketa ofizialak, eta kontuan hartuko dira hizkuntza titulu eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesitako kasuak.

Baldin eta, behin kontratazioa adjudikatuta, hizkuntza gaitasuna akreditatu duten langileetakoren bat beste pertsona batek ordeztu badu, pertsona horrek ere akreditatu egin beharko du hemen ezarritako hizkuntza-gaitasuna. Beste horrenbeste egin beharko du subrogazio bidez kontrataturiko langileen ordezkapenen kasuan ere.

Baldin eta zerbitzu horretarako eskatutako hizkuntza-gaitasuna akreditatuko duen lizitatuak bakar bat ere ez badago, Udalak lizitazio-ahalekin bete gabe utziko du, salbuespen modura, eta eskatutako hizkuntza-gaitasuna enplegatuen gutxienez % 80k betetzen duen lizitatuari adjudikatu ahalko dio».

b) Zerbitzuan erabiliko den hizkuntzari buruz:

Honako klausula txertatuko da baldintza teknikoan agirian, «Baliabide pertsonalak eta materialak» ataleko «Hizkuntza-betebeharrak» azpitalean.

«Enpresa esleipendunak, zerbitzua ematerakoan, Udalak bere hizkuntza jarduera arautzeko dituen planen arabera jokatu du.

Beraz, zerbitzua ematean izaten diren herritarrekiko ahozko harremanak euskaraz gauzatzeko ahalegina egingo du enpresak. Horretarako, enpresa esleipenduneko langileak lehenengo hitza euskaraz egingo du eta zerbitzu-hartzaileak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko du elkarrizketa.

Enpresa esleipendunak zerbitzua ematerakoan herritarren esku jartzen dituen agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera eta euskarari emango dio lehentasuna».

Eta gainera,

Kontratazioa administrazio-atal elebidun batek egiten duenean (kasu horretan bakarrik txertatuko da ondoko paragrafoa):

— Proiektu, txosten eta bestelako idatzi luzeak euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztuko ditu.

— Udaleko atal elebidunekin dituen ahozko eta gainerako idatzizko harremanak euskaraz egin ahal izateko, Udalarekin harremanak dituzten langileak elebidunak izango dira».

Kontratazioa administrazio-atal ez elebidun batek egiten duenean (kasu horretan bakarrik txertatuko da ondoko paragrafoa):

— Proiektu, txosten eta bestelako idatzi luzeak euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera».

c) Betebeharren jarraipenari eta ez betetzeari buruz:

Honako klausula txertatuko da baldintza teknikoan agirian, «Baliabide pertsonalak eta materialak» ataleko «Hizkuntza-betebeharrak» azpiatalean:

«Hizkuntza betebehar horiek betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egitea kontratazio-organoari dagokio. Kontratazioa eragin duen udal departamentuaren arduraren izango da, euskara zerbitzuarekin lankidetzan, beharrezkoa den informazioa kontratazio-organoaren eskuetan jartzea. Hizkuntza-betebehar horiek behin eta berriz urratzea nahiko arrazoi izango da kontratua amaiarazteko».

4. Jendaurreko izaerarik ez duten zerbitzuak kontratatzeo hizkuntza-betebeharrak.

Nagusiki herritarrekin harreman zuzenik izan gabe ematen diren zerbitzuak dira jendaurreko izaerarik ez dutenak. Horien kontratazioarako hizkuntza-betebeharrak zehazteko ezinbestekoa da, ordea, zerbitzu horien azpisaikapen bat egitea zerbitzua ematerakoan hizkuntzaren erabilera duen pisuaren eta ezaugarrien arabera:

— Obra eta mantentze kontratuak.

— Zerbitzu-kontratuak

4.1. Obra eta mantentze kontratuentzako hizkuntza-betebeharrak.

a) Hizkuntza-gaitasunari buruz:

Ez zaie hizkuntza-gaitasun jakinik eskatuko klausula administratibo partikularren agirian.

b) Zerbitzuan erabiliko den hizkuntzari buruz:

Honako klausula txertatuko da baldintza teknikoan agirian, «Baliabide pertsonalak eta materialak» ataleko «Hizkuntza-betebeharrak» azpiatalean.

«Enpresa esleipendunak, zerbitzua ematerakoan, Udalak bere hizkuntza-jarduera arautzeko dituen planen arabera jokatu du.

Beraz, enpresa esleipendunak zerbitzua ematerakoan herritarren edo udalaren esku jartzen dituen agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera eta euskarari emango dio lehentasuna.

Eta gainera,

Kontratazioa administrazio-atal elebidun batek egiten duenean (kasu honetan soilik txertatuko da ondoko paragrafoa):

— Proiektu, txosten eta bestelako idatzi luzeak euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera.

— Udaleko atal elebidunekin dituen ahozko eta gainerako idatzizko harremanak euskaraz egin ahal izateko, Udalarekin harremanak dituzten langileak elebidunak izango dira».

Kontratazioa administrazio-atal ez elebidun batek egiten duenean (kasu honetan soilik txertatuko da ondoko paragrafoa):

— Proiektu, txosten eta bestelako idatzi luzeak euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera».

c) Betebeharren jarraipenari eta ez betetzeari buruz:

Honako klausula txertatuko da baldintza teknikoan agirian, «Baliabide pertsonalak eta materialak» ataleko «Hizkuntza-betebeharrak» azpiatalean.

«Hizkuntza-betebehar horiek betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egitea kontratazio organoari dagokio. Kontratazioa eragin duen udal departamentuaren arduraren izango da, Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan, beharrezkoa den informazioa kontratazio-organoaren eskuetan jartzea. Hizkuntza-betebehar horiek behin eta berriz urratzea nahiko arrazoi izango da kontratua amaiarazteko».

4.2. Zerbitzu-kontratuentzako hizkuntza-betebeharrak.

4.2.1. Zerbitzu iraunkorrenentzako hizkuntza-betebeharrak.

a) Hizkuntza-gaitasunari buruz:

Herritarrekin zuzeneko harremanean lan egitea dakarten kontratuei dagokienez, zeinak aurrerago zerrendatzen baititugu, lan horiek burutuko dituzten langileek gai izan beharko dute beren eginkizunak bi hizkuntza ofizialetan betetzeko.

Horretarako, baldintza teknikoan agirian zehaztu egin beharko da hizkuntza gaitasun jakin bateko pertsonen bete

beharko diren lanpostuen zerrenda, eta eskatutako maila adieraziko da.

Bestalde, kontratua burutzerakoan kontratistak izango dituen betebeharreri buruz aurrerago esaten denaz gain, honako klausula txertatuko da baldintza administratiboen agirian:

«Hizkuntza betebeharrak

«Udalak bere hizkuntza jarduera arautzeko dituen planen arabera eman beharko du zerbitzua enpresa adjudikatarioak. Horretarako, preskripzio teknikoen agirian eskatutako hizkuntza gaitasuna duten langileak adskribatu beharko dizkie lanpostuei (txertatu hemen lanpostu bakoitzaren ezaugarrien arabera Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzuak proposatutako hizkuntza-gaitasuna).

Enpresak horrelako langileak badituela akreditatze aldera, kontratazioko mahaiak egindako adjudikazio-proposamena jasotzen duenetik kontaktzen hasi eta bi egun balioduneko epean, kontratatzekeo prozedura kudeatzen duen departamentuak eskaintza ekonomikoki onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailari errekeritu beharko dio bost egun balioduneko epean, Udalak egindako errekerimendua jasotzen duen egunaren hurrengotik kontaktzen hasita, identifikatuz ditzala kontratua gauzatzeko behar diren lanpostuak betetzeko izendatu dituen langileak, adieraziz nolako mailak dituzten hizkuntza gaitasunean eta, hala dagokionean, dauzkaten sinestamenduak erantsita.

Baldin eta langile horietakoren batek edo inork ere ez badu eskatzen zaion hizkuntza gaitasuna, edota gaitasun hori akreditatzen ez badu, behar duten langileei azterketak edo mailaketa-probak egingo dizkie Udalak, SPKLTBko 151.2 artikuluan aipatzen diren dokumentuak aurkezteko baldintza-agiri honetan finkatutako epearen barruan. Baldin eta, eskatutako hizkuntza betebeharrak betetzen dituzten hautagaiak falta zaizkiolako, lanposturen bat bete ezinik geratzen bada, lizitatzailak bere eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da. Kasu horretan, prozedura bera egingo da hurrengo lizitatzailarekin, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera.

Agiri hauen bitartez egiaztatuko da hizkuntza-gaitasuna: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.

Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera, aintzat hartuko dira euskaraz egindako ikasketa ofizialak, eta kontuan hartuko dira euskara-maila hizkuntza titulu eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesitako kasuak.

Baldin eta, behin kontratazioa adjudikatuta, hizkuntza gaitasuna akreditatu duten langileetakoren bat beste pertsona batek ordeztu badu, pertsona horrek ere akreditatu egin beharko du hemen ezarritako hizkuntza gaitasuna. Beste horrenbeste egin beharko du subrogazio bidez kontrataturiko langileen ordezkapenen kasuan ere.

Baldin eta zerbitzu horretarako eskatutako hizkuntza gaitasuna akreditatuko duen lizitatzaila bakar bat ere ez badago, Udalak lizitazioko deialdia bete gabe utziko du, salbuespen modura, eta eskatutako hizkuntza gaitasuna enplegatuen gutxienez % 80k betetzen duen lizitatzailari adjudikatu ahalko dio».

b) Zerbitzuan erabiliko den hizkuntzari buruz:

Honako klausula txertatuko da baldintza teknikoen agirian, «Baliabide pertsonalak eta materialak» ataleko «Hizkuntza-betebeharrak» azpiatalean.

«Enpresa esleipendunak, zerbitzua ematerakoan, Udalak bere hizkuntza-jarduera arautzeko dituen planen arabera jokatu du.

Enpresa esleipendunak zerbitzua ematerakoan herritarren edo udalaren esku jartzen dituen proiektu, txosten, agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera eta euskarari emango zaio lehenetsuna.

Eta gainera,

Kontratazioa administrazio-atal elebidun batek egiten duenean (kasu horretan soilik txertatuko da ondoko paragrafoa):

— Proiektu, txosten eta bestelako idatzi luzeak euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera.

— Udaleko atal elebidunekin dituen ahozko eta gainerako idatzizko harremanak euskaraz egin ahal izateko, Udalarekin harremanak dituzten langileak elebidunak izango dira».

Kontratazioa administrazio-atal ez elebidun batek egiten duenean (kasu horretan soilik txertatuko da ondoko paragrafoa):

— Proiektu, txosten eta bestelako idatzi luzeak euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera».

c) Betebeharren jarraipenari eta ez betetzeari buruz:

Honako klausula txertatuko da baldintza-agirian, kontratistaren betebeharren atalean:

«Hizkuntza-betebehar horiek betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egitea kontratazio organoari dagokio, baina kontratazioa eragin duen udal departamentuaren ardura izango da, euskara zerbitzuarekin lankidetzan, beharrezkoa den informazioa kontratazio-organismoaren eskuetan jartzea. Hizkuntza-betebehar horiek behin eta berriz urratzea nahiko arrazoi izango da kontratua amaiarazteko».

4.2.2. Zerbitzu puntualentzako hizkuntza-betebeharrak.

a) Hizkuntza-gaitasunari buruz:

Ez zaie hizkuntza-gaitasun jakinik eskatuko klausula administratibo partikularren agirian.

b) Zerbitzuan erabiliko den hizkuntzari buruz:

Honako klausula txertatuko da baldintza teknikoen agirian, «Baliabide pertsonalak eta materialak» ataleko «Hizkuntza-betebeharrak» azpiatalean.

«Enpresa esleipendunak, zerbitzua ematerakoan, Udalak bere hizkuntza-jarduera arautzeko dituen planen arabera jokatuko.

Enpresa esleipendunak zerbitzua ematerakoan herritarren edo udalaren esku jartzen dituen proiektu, txosten, agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera eta euskarari emango zaio lehentasuna.

Eta gainera,

Kontratazioa administrazio-atal elebidun batek egiten duenean (kasu horretan soilik txertatuko da ondoko paragrafoa):

— Proiektu, txosten eta bestelako idatzi luzeak euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera, beti ere herritarrek edo zinegotziek kontsultatzeko espediente baten parte baldin badira.

— Udaleko atal elebidunekin dituen ahozko eta gainerako idatzizko harremanak euskaraz egin ahal izateko, Udalarekin harremanak dituzten langileak elebidunak izango dira».

Kontratazioa administrazio-atal ez elebidun batek egiten duenean (kasu horretan soilik txertatuko da ondoko paragrafoa):

— Proiektu, txosten eta bestelako idatzi luzeak euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera, beti ere herritarrek edo zinegotziek kontsultatzeko espediente baten parte baldin badira».

c) Betebeharren jarraipenari eta ez betetzeari buruz:

Honako klausula txertatuko da baldintza teknikoen agirian, «Baliabide pertsonalak eta materialak» ataleko «Hizkuntza-betebeharrak» azpiatalean.

«Hizkuntza-betebehar horiek betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egitea kontratazio organoari dagokio. Kontratazioa eragin duen udal departamentuaren ardura izango da, euskara zerbitzuarekin lankidetzan, beharrezkoa den informazioa kontratazio-organoaren eskuetan jartzea. Hizkuntza-betebehar horiek behin eta berriz urratzea nahiko arrazoi izango da kontratua amaiarazteko».

Jendaurreko zerbitzuak eta dagozkien hizkuntza-gaitasunak (HG)

(Hizkuntza-gaitasunaren ondoan trebetasunik adierazten ez bada [adibidez, 3 HG], ulertu behar da ahozkoan eta idatzizkoan eskatzen zaiola aipaturiko gaitasuna. Bestela, zehaztu egiten da trebetasunetako bakoitzean zein gaitasun eskatzen zaion [adibidez, 3 HG ahozkoan, 2 HG idatzizkoan]).

TABERNA, ZINEA ETA HARRERA	
Kiroldegiko taberna zerbitzua	2 HG ahozkoan 1 HG idatzizkoan
Zinematografia zerbitzua	
Atezaintza zerbitzua (kiroldegia, kultur etxea...)	
HEZIKETA	
Musika eskola	3 HG
Kiroldegiko begiraleak	2 HG edo 3 HG ikastaroaren izaeraren arabera
Kultur etxeko ikastaroak	
Gazteriako monitoreak	
Enplegua sustatzeko programako ikastaroak	
Auzolan programako ikastaroak	
HAURRAK ETA GAZTERIA	
Gazteentzako interbentzio sozioedukatihoa	Arduradunak eta gutunak, txostenak, planak eta memoriak egiten dituenak 3 HG. Besteek 3HG ahozkoan, 2 HG idatzizkoan. * Begiraleak 2 HG ahozkoan, 1 HG idatzizkoan.
Haur eskola	
Eguberrietako haur parkea *	
Haur eta gazteentzako ikuskizunak *	
Eskolako jantoki zerbitzua	
Gazteen informazio bulegoa	
Ingurumen heziketa	
Ludoteka	
Naturako eskola	Arduradunak eta gutunak, txostenak, planak eta memoriak egiten dituenak 3 HG. Besteek 3HG ahozkoan, 2 HG idatzizkoan.
Hurrentzako udalekuak	

BEREZIAK	
Adinekoen egoitzako sukaldaritza zerbitzua	1 HG ahozkoan
Garraio zerbitzuak	
Adinekoen egoitzako instalazioen mantentzea	

BESTELAKOAK	
Artapen pertsonalizaturako zerbitzua eguneko egoitzan	2 HG ahozkoan 1 HG idatzizkoan
Babespeko etxebizitzaren zerbitzua	
Etxean laguntzeko zerbitzua	
Emakumeen zentro zibikoko zerbitzuak	
Adinekoen egoitzako ostalaritzako zerbitzuak	
Eguneko zentroko ostalaritzako zerbitzuak	
Desgaituen kluberako interbentzio zerbitzua	
Zaharren egoitzako erizaintza	3 HG ahozkoan 2. HG idatzizkoan
Kirol-medikuntza zerbitzua	
Fisioterapia zerbitzua	3 HG ahozkoan 2 HG idatzizkoan

Jendaurreko izaerarik ez duten zerbitzuak
eta dagozkien hizkuntza-gaitasunak (HG)

OBRA ETA MANTETZE KONTRATUAK
Aldian aldiko obrak
Zentro municipalen garbiketa
Zabor-bilketa
Kale-garbiketa
Kirol instalazioen garbiketa
Bestelako garbiketak
Informatikako zerbitzuak
Birusen kontrako erabilpenaren lizentzia
Musika Eskolako informatika-programaren mantentzea
Lursail-administrazioa
Lursail-administrazioa Aldagarria
Lursail-administrazioa kontratu berria
Hiri garraioko zerbitzuen kudeaketa
Operadore zinematografikoa
Eszenatokiko eta Soinuko zerbitzu teknikoak
Muntatzeko zerbitzua
Kirol-instalazioen desinsektazioa
Kirol-instalazioen mantentzea
Zentro sozialeko instalazioak mantentzea
Legionellaren analisi sanitarioak
Hondakin sanitarioen tratamendua
Kontu-ikuskapena. Kalitateko planaren ziurtagiria
Kontu-ikuskapena. Adineko egoitzaren kontuak
Kalitateko planaren ziurtagiriaren mantentzea

Ekoscan ekintza-plana
Zarata kudeatzeko plana
Hondakin arriskugarriak kudeatzeko plana
Aire kalitatearen gaineko estudioa
Hilerriko errausketak
Arratoigabetzea
“Boga” sistema informatikoaren mantentzea
Mezulari zerbitzuak
Telealarmako zerbitzua
Lorazaintzako mantentzea
Kontagailuen mantentzea eta irakurketa
Animaliak babesteko elkartearen zerbitzuak

ZERBITZU-KONTRATUAK
Prensa-bulegoa
(Obren eta) Aholkularitza eta asistentzia teknikoaren kontratazioak
Aholkularitza tekniko-juridikoa
Laneko arriskuen prebentzioko zerbitzuak

ANEXO I

Servicios de cara al público
y sus correspondientes niveles de competencia lingüística (NCL)

(En caso de que junto a la competencia lingüística no se indique ninguna destreza [por ejemplo, NCL 3], se debe entender que dicha competencia se le exige tanto en lo oral como en lo escrito. En caso contrario, se especifica la competencia que se le exige en cada una de las destrezas [por ejemplo, NCL 3 a nivel oral, NCL 2 a nivel escrito]).

BARES, CINES Y RECEPCIÓN	
Servicio de bar del polideportivo	NCL 2 a nivel oral NCL 1 a nivel escrito
Servicio de cinematografía	
Servicio de conserjería (polideportivo, casa de cultura...)	
EDUCACIÓN	
Escuela de Música	NCL 3
Monitores del polideportivo	NCL 2 o NCL 3, dependiendo del carácter del curso
Monitores cursos de la casa de cultura	
Monitores de juventud	
Cursos del Programa de Promoción de Empleo	
Cursos del Programa Aizolan	
INFANCIA Y JUVENTUD	
Intervención socioeducativa para los jóvenes	El responsable y la persona que redacta las cartas, los informes, los planes y las memorias, NCL 3. Los demás, NCL 3 a nivel oral y NCL 2 a nivel escrito. * Los monitores, NCL 2 a nivel oral, NCL 1 a nivel escrito.
Haur Eskola	
Parque infantil de Navidad *	
Espectáculos para niños y jóvenes *	
Comedor escolar	
Oficina de Información Juvenil	
Educación medioambiental	
Lectoría	
Escuela de la naturaleza	
Colonias para niños	
ESPECIALES	
Servicio de cocina de la residencia de ancianos	NCL 1 a nivel oral
Servicios de transporte	
Servicio de limpieza de centros para la tercera edad	
OTROS	
Servicio de atención personalizada en el centro de día	NCL 2 a nivel oral NCL 1 a nivel escrito
Asistencia en viviendas tuteladas	
Asistencia domiciliaria	
Servicio centro cívico de la mujer	
Servicio de hostelería de la residencia de ancianos	
Servicio de hostelería del centro de día	
Servicio de intervención para el club de discapacitados	
Enfermería de la residencia de ancianos	NCL 3 a nivel oral NCL 2 a nivel escrito
Servicio de medicina deportiva	
Servicio de fisioterapia	NCL 3 a nivel oral NCL 2 a nivel escrito

Servicios que no son de cara al público
y sus correspondientes niveles de competencia lingüística (NCL)

CONTRATOS DE OBRA Y DE MANTENIMIENTO
Obras
Limpieza de centros municipales
Recogida de basuras
Limpieza de calles
Limpieza de las instalaciones deportivas
Otras limpiezas
Servicios de informática
Licencia de uso contra virus
Mantenimiento del programa informático de la escuela de música
Administración fincas
Administración fincas. Variable
Gestión de servicios de transporte urbano
Operador cinematográfico
Servicios técnicos de escenografía y sonido
Servicio de montaje
Desinsectación de instalaciones deportivas
Mantenimiento instalaciones deportivas
Mantenimiento instalaciones centro social
Análisis sanitario legionella
Tratamiento residuos sanitarios
Auditoría cuentas Residencia
Auditoría certificado plan de calidad
Mantenimiento certificado plan de calidad
Medidas correctoras Ekoscan
Plan de gestión del ruido
Plan de gestión de residuos peligrosos
Estudio sobre calidad del aire
Incineraciones cementerio
Desratización
Mantenimiento sistema informático "Boga"
Servicio mensajería
Servicio telealarma
Mantenimiento de jardinería
Mantenimiento y lectura de contadores
Servicios de la asociación protectora de animales
CONTRATOS DE SERVICIO
Oficina de prensa
Contrataciones de (obras y) consultoría y asistencia técnica
Asesoramiento técnico-jurídico
Asesoría para la prevención de riesgos laborales